

NAFARROAKO ENPLEGU PLANA 2021-24

700tik gora milioi
enpresen etekinak
puzteko eta UGT - CCOO
finantzatzeko



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

INDIZEA

Sanz eta Barcinaren garaiko elkarrizketa sozialaren praktika klientelarren itzulera.....	3
Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua, egiturako zutabeak.....	4
2021-2024 Enplegu Planaren balorazioa.....	5
Elkarrizketa sozialak ez ditu enpleguaren arazoak konpondu.....	9
Nafarroako elkarrizketa sozialaren ibilbide iluna.....	10
Ondorioak.....	11

Txosten honek 6 atal ditu. Lehenik aztertzen dira PSNk, Geroa Baik eta Podemosek osatutako Gobernuaren erabakiak, zeina Sanz eta Barcinaren garaiko jokabideetara itzultzen ari den. Ondoren azaltzen da Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sare honetan duen eginkizuna. Hirugarren atalean 2021-2024 Enplegu Planaren balorazio zehatza egiten da. Laugarrenean, berriz, elkarrizketa soziala ez dela eraginkorra argudiatzen da, eta Nafarroan izan duen ibilbide iluna gogoratzen da. Txostenaren azken atalean ondorioak bildu ditugu.

1. Sanz eta Barcinaren garaiko elkarrizketa sozialaren praktika klientelarren itzulera

1.1. Erregimenaren txiringitoak berpiztu dira

Duela gutxi ELAk “Vuelta a los chiringuitos del Régimen. Demokraziari erasorik ez” kanpainarekin salatu zuenez, PSNk, Geroa Baik eta Podemosek osatutako Gobernuak erabaki du berreskuratzea Sanz eta Barcinaren aldiko irizpide antidemokratikoak; hala ari da jokatzeko Kontratazio Publikoaren Batzordean, Automobilaren Mahaian edota Prestakuntza eta Talentuaren Mahaian.

1.2. ERTEen osagarriak: Elkarrizketa sozialaren mugak agerian

Erregimenaren irizpide antidemokratikoetara itzultzeko estrategia berak eragin zuen Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainean pandemiako krisi-mahaia desagitea. Mahai honetan

UGT, CCOO, ELA eta LAB geunden, eta ERTEetarako osagarria eztabaidatzeko eratu zen. Chiviteren gobernuak, ELAren proposamenari erantzunik eman gabe, gai hau Elkarrizketa Sozialerako Kontseilura (UGT eta CCOO) eraman zuen. ERTEen osagarriei buruzko akordioarekin gertatuak argi asko adierazten du elkarrizketa sozialaren errealitatea zein den, izan ere, izugarrizko propaganda egin baitzen haren inguruan, esanez 11.000 lagunek jasoko zutela laguntza; alabaina, urtebete igarota 600 herritarrek besterik ez dute jaso.

1.3. Chivite lehendakariak CCOOen kongresuan esandakoa ez da bateragarria bere ardura instituzionalarekin

Gobernuburuak Nafarroako CCOOen kongresua baliatu zuen aldarrikatzen duen sindikalismoari erasotzeko; horrela iraindu egin zituen nafar langile asko eta asko. Lehendakariaren jokabide hau ez da bateragarria bere ardura instituzionalarekin, eta ez du bat ere errespeturik adierazten autonomia sindikalarekiko.

1.4. Iruñeko Udalean UPN eta PSNren arteko akordioa, UGT eta CCOOen egoitza berriak Azpilagaña hegoaldeko merkataritza-makroproiektuan sartzeko

Duela gutxi ezagutzera eman dute UPNk eta PSNk Iruñeko Udalean iritsi duten akordioa: Azpilagaña hegoaldean merkataritza gun e handi bat eraiki nahi dute, eta hara eramango lituzkete UGTren zein CCOOen egoitzak. Proiektu honek kontrako erreakzio gogorra piztu du, 2.300tik gora denda ordezkatzten dituzten 30 merkatarik elkartek protesta egin baitute denda txikiei eragin diezaiekeen kaltea dela eta.

1.5. Nafarroako Lan Epaitegia berriz sortzea ukatu dute

Oraingo Gobernuak eta aurrekoak ukatu egin dute ELAk eta LABek Nafarroako Lan Epaitegia berriz eratze ko 2018an egindako proposamena; organo hau Gobernuak finantzatz en du, eta oraindik ere irizpide baztertzaileetan du oinarria.

2 . Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua, egiturako zutabeak

2.1. Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua deuseztatu behar da

Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortu zuen 22/2014 Foru Legea Yolanda Barcinaren garaiko legea da; Ekonomia eta Enplegua Suspertze ko Akordioaren ondorio da, zeinari esker CENek, UGTk eta CCOOek 545,6 milioi euro jaso zuten.

Legearen atarikoan elkarrizketa izan denari buruz errealitatetik kanpo dagoen irakurketa egiten da: “Nafarroaren esperientzia elkarrizketa sozialean guztiz emankorra izan da”; ahaztu egiten dituzte Kontuen Ganberak gai hau ikertu izan duen aldioro salatutako irregulartasunak, baita haren baitako politika opaku eta antidemokratikoak ere.

Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua deuseztatzea premia zkoa eta beharrezkoa da.

2.2. ELAk Nafarroako Enplegu Zerbitzuan ez sartzea erabaki izana, eredu ez legitimatzeko gakoa

Aurreko Gobernuak Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansare (NEZ-NL) erakundeko Gobernu Kontseiluan partaidetza hedatu nahi izan zuen, eta parte hartzeko irizpidea aldatu zuen ELA eta LAB sindikatuak erakunde hartan sartzeko aukera izan zezaten.

Haatik, ELA izan zen NEZ-NLren Kontseiluan sartzeari uko egin zuen bakarra, izan ere, Gobernuaren erabaki horren xedea ez baitzen erakundearen funtzionamendua aldatzea, makillatzea baizik. Hau da, enplegu-politika aktiboetan eredu klientelar eta pribatuari eutsi nahi zitzaion, esaterako enplegurako prestakuntzan. Horrela Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Kontseilua UGTk, CCOOk eta LABek osatu zuten.

Nafarroako Gobernuak legislatura hasieran iragarri zuen Nafarroako Enplegu Zerbitzuan hartzen ziren erabakiak Elkarrikerako Sozialerako Kontseiluak berretsi behar zituela; beraz, are nabarmenagoa da ELAk asmatu egin zuela NEZ-NLren Gobernu Kontseiluan ez sartzeko erabakia hartu zuenean. Izan ere, Enplegu Planean jaso diren politika aktiboak buruzko guztia bere sinatzaileek aurrez NEZen Gobernu Kontseiluan hitzartuta dago.

3. 2021-2024 Enplegu Planaren balorazioa

3.1. 700etik gora milioi diru publikotik, baina enpleguaren benetako arazoei heldu gabe

Nahiz eta 80tik gora orrialde hartzen dituen, Planaren diagnostikoan ez zaie heltzen zergatiei, zeintzuk posible egiten duten prekaritatea pairatzen duten gero eta langile gehiago egotea. Areago, prekaritatea ez da aipatu ere egiten, ez eta desberdintasunari aurre egiteko beste kontu batzuk ere, esaterako fiskalitatea edo aberastasunaren banaketa; Plan guztian ez dira agertzen. Aitzitik, testua goitik behera lehiakortasunaren eta enpresen etekinaren laudorio hutsa da; UGTk eta CCOOk amore eman dute ideologiari dagokionez.

3.2. Dokumentuaren mamia: autokonplazentzia eta propaganda

Dokumentuan behin eta berriz gozesten dira elkarrikerako sozialaren usteko onurak, baina alde batera uzten dira xahutu den dirutza publikoa eta sare honen inguruan izan diren irregularitasun guztiak. Areago, Planean aintzat hartzen da pandemiako ERTEen osagarriak buruzko akordioa, erabateko porrota izanagatik ere.

3.3. Planean nagusi dira orokorkeriak eta zehaztasun eza, eta betetze maila neurtzeko ez dago adierazlerik

Propaganda eta asmo-adierazpen zabal bat alde batera utzita, Plana orokorkeriaz eta termino lausoz beteta dago: "Indartuko da", "aztertuko da", "sustatuko da"... testua

propio da anbigua, eta gainera ez du adierazlerik jasotzen, horrela behin denbora igarota ezin baita betetze mailaren balantze zehatzik egin.

Eskandalu hutsa da diru publikotik 700etik gora milioi euro jartzea inolako helburu konkreturik ez duen Plan baterako.

3.4. Planarekin politika publikoak pribatizatzen dira, eta Parlamentuaren kontrolari iskin egiten zaio

Plan honekin politika publikoak pribatizatu egiten dira, esaterako genero ekitatea, laneko istripuak... Gainera, Planaren ebaluaketa eta jarraipena Elkarrikerako Sozialerako Kontseiluan egingo da; beraz, erabat diru publikoz finantzatuta izanagatik ere, Parlamentuaren kontrolari iskin egingo zaio.

3.5. Enplegu Planak ez du zilegitasun demokratikorik ez dituelako gehiengo sindikalak errespetatzen

Azken urteetan UGTk eta CCOOk Nafarroan ordezkari galduta dute: 2011n biek batera nafar langileen % 54,89a ordezkatzeko zuten, baina portzentajea aurtengo maiatzaren (azken itxiera ofiziala) %48,53eraino jaitsi da.

Ondorioz, Enplegu Planak ez du zilegitasun demokratikorik, hura babesten dutenek Nafarroan % 50etik beherako ordezkari galduta baitute.

3.6. Zehazten diren aurrekontu-sail bakarrak dira enpresentzat eta UGT zein CCOOen koadroak ordaintzeko

Planean jasotako aurrekontu-sailen deskribapenean, zeintzuetarako 701,7 milioi euro aurreikusi diren, agerikoa da laguntza gehienak enpresen etekinak puztera bideratuko direla. Begibistakoa da enpresei zuzendutako laguntza hauek ez dutela enplegurik sortzen; aitzitik, pribilegio gehiago ematen dizkiete haiei eta diru-bilketa publikoa urritzen dute. Enplegua sortzeko hutsegindako bideei eustea, esaterako kontratatzeko pizgarriak edota ustezko nazioartekotzekoak sustatzekoak -honek deslokalizaziora daramalarik- honez gero onartezina da.

Langileen onerako omen diren aurrekontu-sail bakarrak UGT eta CCOOen koadroak jasoko dituzten soldata ordaintzeko izango dira, Prebentzioko Lurralde-ordezkarien bitartez (1,2 milioi euro), baita Berdintasun Agenteen bidez (600.000 euro).

3.7. UGT eta CCOOentzako finantziarioak sindikatuen aukera berdintasuna urratzen du

700etik gora milioi euroren kudeaketa UGT eta CCOOen esku uzteak helburu bat du, bi sindikatuoi bultzada ematea, noiz eta hauenganako konfiantza gero eta langile nafar gutxiagok adierazten duten unean; hala islatzen da azken urteetan izan duten

ordezkaritza jaitsieran. Erabaki horrek sindikatuen arteko aukera berdintasuna hondatzen du.

3.8. Prebentzioko Lurralde Ordezkararen itzulera, UGT eta CCOO finantzatzeko, ez lan istripuei aurre egiteko

Aurreko Gobernuak Lurralde Ordezkararen figura berreskuratu zuen, eta ELAk horri aurre egin zion. Figura hau lehenago ere bazegoen, Sanzen eta Barcinaren garaian; erabat alferrekoa zela ikusi zen, eta baliatzen zela UGTk eta CCOOk hauteskunde sindikalak antola zitzaizuten beste sindikatuak sartzeko arazoak zituzten enpresetan. 2021-2024 Enplegu Planak atzera ere figura hau jaso du, eta milioitik gora euro bideratuko du; kopuru hau oso nabarmena da, administrazio berak beste sail batzuetarako zenbat jartzen duen ikusita: 135.000€ Lan Osasuneko Ekintza planerako edota 120.000€ amiantoa kentzeko Planerako.

ELAren iritziz administrazioak zuzeneko kontrataziorako baliabide gehiago jarri behar du prebentzioko bitartekoak -langileak zein materialak- gehitzeko. Lotsagarria da halako gai garrantzitsuan -urteko lehen sei hiletan 10 langile hil dira-, Nafarroako Gobernuaren proposamena izatea figura hau berpiztea, aurrez ere jakinagatik eraginik ez duela.

3.9. Genero desberdintasuna borrokatu ordez, UGT eta CCOO finantzatzeko berdintasun agenteak

Prebentzioko Lurralde Ordezkararen bidez egin duen moduan, Nafarroako Gobernuak UGT eta CCOO finantzatu nahi ditu, administrazioaren bitartekoak hobetu ordez; horretarako milioi erditik gora euro jarriko du figura berri bat sortzeko. Tamalez, Planaren 243 orrialdeetan ez da aipatzen emakumeek pairatzen dituzten desberdintasunen zergati bat ere. Genero diskriminazioari aurre egitea ezinezkoa da bere arrazoiak aipatu ere egiten ez badira.

3.10. Enplegu Plana txiringito ugariren sorburua izango da

Salatu izan dugun moduan, Nafarroako Gobernua Sanz eta Barcinaren garaitako praktiketara itzuli da; oso baliagarriak ez diren foroak sortu ditu, irizpide antidemokratikoak oinarritzat hartuta. Plan honetan ere horri eutsiko dio, era horretako hainbat organoren sorburu izango baita (iruzurraren aurkako mahaia, Hezkuntza sailarekiko LHri buruzko lantaldea, Laneko Ikuskaritzarekiko hirutariko espazioa...). Halaber, Planean iragartzen da Lan Osasuneko IV Plana ere prestatzen ari direla; plan honek ziurrenik txiringito berriak sortuko ditu Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluaren lekua hartzeko.

3.11. Europar funtsak sinatzaileentzako erreferentzia-markoa dira, baina hauek ez dute esaten lan arloan eta pentsioetan murrizketak ezartzeko baliatuko direla

Planak ontzat ematen du Europar Batasunean aplikatzen ari diren politika publikoen marko neoliberala. Esaterako, Planaren garapenean europar funtsak aipatzen dira, eta etorkizuneko ongizate sozialerako funtsezkoak izango direla esaten da; haatik, Europar Batasunak funtsak emateko espainiar Estatuari murrizketak galdatuko dizkio pentsioetan eta lan eskubideetan.

3.12. Enplegu Planak AHTaren eraikuntza berresten du

Azpiegituren hobekuntzari buruzko atalean AHTaren eraikuntzaren alde egiten da; proiektu honek hondamendi ekonomiko, sozial eta ekologikoa dakar; egiteko arrazoi bakarra lizitazioen negozioa da.

3.13. Ekintzaile izateko kultura sustatzen da

Testuan erabilitako hizkuntza erabat desorekatua da: lan harremanetan ez du konfrontaziorik ikusten, eta enpresarioak omen dira aberastasuna sortzen duten bakarrak.

Areago, esaten da lehen eta bigarren hezkuntzan derrigorrezkoa izan behar dela enpresarioaren figurari buruzko ikasgai bat. Haatik, ez da aipatzen eskoletan lan eskubideei edo desberdintasun sozialei buruzko gaiak landu behar direnik.

Era berean ekintzailetzaren apologia egiten da; sinestarazi nahi digute pertsona baten porrota edo arrakasta bere esku dagoela, ekintzaile izateko gaitasun edo ezintasunaren arabera.

3.14. Planak ezkutatu egiten du Gobernu dela Nafarroako enplegatzailearik handiena, eta arlo publikoan behinbehinekotasuna pribatuan baino handiagoa dela

Planak kalitatezko enplegua sortu beharra aldeztu duen arren, ez dago neurri zehatz bat ere arlo publikoan aldi baterako enplegu tasa jaitsiarazteko. Ezin da onartu Nafarroako Gobernu enplegatzailea den eremuan behinbehinekotasun tasa Estatuak handiena izatea (% 40); Plan honetan ez da jaso neurri bat bera ere horri aurre egiteko.

4. Elkarriketa sozialak ez ditu enpleguaren arazoak konponduko

4.1. Ereduak kale egin du, eta lan merkatuan ez du prekaritatea hedatzerik eragotzi

Elkarriketa sozialaren baitan erabakitako politikek ez dituzte langile-klasearen arazoak konpondu: langabezia maila altua, prekaritatea, laneko istripu eta gaixotasunak, prestakuntza iraunkorraren eta langabeen prestakuntzaren kalitate kaskarra, etab. Gaur bizi dugun egoerak agerian utzi du elkarriketa sozialeko politiken porrota.

Elkarriketa sozialak ez du eragotzi aberastasunaren banaketa gero eta injustuagoa izatea. 2000 eta 2018 bitartean soldatapeko enpleguak BPGan 5,1 puntu galdu ditu (% 47tik %

41,9raino); aitzitik, enpresen etekinak 4,7 puntu hazi dira (BPGaren % 43tik % 47,7raino. Gai hau funtsezkoa da gizarte honetan, non pobrezia hedatzen ari den eta desberdintasuna gero eta handiagoa den.

Halaber, nabarmendu behar da lan prekarietatea gero eta orokorragoa dela; honek eragiten du, besteak beste, laneko istripu eta gaixotasunak gehitzea edota Nafarroan biztanleria okupatuaren % 12 bazterkeria soziala jasateko arriskuan egotea.

4.2. Elkarrizketa soziala, Nafarroako Gobernuaren politika antisozialak legitimatzeko tresna; finantziario publikoa bake sozialaren truke.

Nafarroako Gobernuak legealdi honetan hartu dituen erabakiak Patronalarentzat pozgarriak izan dira (Estatuarekiko akordioa defizit helburuari buruz, 2018ko superabita zorra amortizatzeko baliatu izana, Enpresen Ondarearen gaineko zerga kentzea, bidezko zerga-erreforma ukatzea, AHTren eraikuntza, pandemiaren unerik larrienetan oinarritzeko ez ziren jarduerak ixtearen kontrako jarrera...).

UGTk eta CCOOk elkarrizketa sozialean parte hartzen dutenez, azkenean Gobernu honen politika antisozialak legitimatu egiten dituzte. Gobernuak beren politikak gauzatzen dituzten ardurak lausotu egiten dira, baita enpresen ardura ere, hainbat arlotan: enplegua, prestakuntza, lan-segurtasun eta -osasuna. Hots, sare bat osatzen da finantziarioa bake sozialaren truke jasotzeko.

4.3. Elkarrizketa sozialak Patronalari beto eskubidea ematen dio

Elkarrizketa sozialaren sistemak Patronalari aukera ematen dio bere interesen kontra joan daitekeen akordio ororen gaineko betoa ezartzeko. Prekarietatea gainditu eta lan baldintza duinak lortzea izan beharko litzateke edozein Gobernuaren lehentasuna, baina horretarako Patronalaren interesekin talka egitea ezinbestekoa litzateke.

Lan merkatuko arazoak elkarrizketa sozialaren eremuan aztertu behar direkin tematuta Patronalari egiten zaio mesede, horrek aukera ematen baitio bere interesen kalterako izan daitekeen edozein hobekuntza blokeatzeko.

5. Nafarroako elkarrizketa sozialaren ibilbide iluna

5.1. Sarrera

Elkarrizketa soziala honez gero aspaldiko kontua da Nafarroan. Denborarekin agerian geratu da bere xede nagusia izan dela bake soziala eta Gobernuaren politikaren laguntasun akritikoa erostea finantziario publikoaren truke.

Elkarrizketa sozialaren funtsa izan da politika publiko jakin batzuk gardentasunik gabe pribatizatzea. Tamalez, Nafarroan adibide larriak ditugu: Enplegurako prestakuntza, lan osasuna, immigrazio politikak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren hitzarmenak, baita etxebizitza babestuak ere. Oraingo Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Podemosek osatua) eredu hau berpiztu nahi izateak arrazoi bakarra du, akordio hauek sinatzen dituztenen onura bilatzea.

5.2. Kontuen Ganberak ere zalantzan jarri du sistema hau

Elkarriketa sozialaren eta horretara bideratzen den diru publikoaren kudeaketaren inguruan informazio gabezia kezagarria da. ELAk behin eta berriz eskatu izan du gardentasun handiagoa eta erakundeok kudeatzen dituzten diru-sailen gaineko kontrola Parlamentuaren aldetik.

Hain zuzen, Kontuen Ganberak elkarriketa sozialaren inguruko kontuak fiskalizatu izan dituenen irregulartasunak ezagutu dira. 2007an Nafarroak Europar Batasunaren Funtz Sozialeko arlotik jasotako funtsei buruzko txosten batek 2000-2002 epealdian 700.436 euroren alde antzeman zuen NEZek INAFRE bidez prestakuntza zentroei ordaindu zienaren eta Bruselari zertifikatu zitzaion kopuruaren artean. NEZaren 2012ko fiskalizazio txostenak ebatzi zuen ekidin egin behar zela erakunde jakin batzuen parte hartzea NEZeko zuzendaritza organoetan, baldin eta honek ematen dituen laguntzak jasotzen bazituzten. Halaber, 2013ko Moderna Planari buruzko txostenak esaten du Moderna Fundazioa publikoa izan beharko litzatekeela, ez pribatua.

5.3. Funtz publikoetatik 1.500tik gora milioi euro bideratu dira aurreko Enplegu Planetara

1998tik hona lau Enplegu Plan erabaki dituzte CENek, UGTk eta CCOOk; lehena, 1999-2001 urteen artekoa; bigarrena, 2002-2004 epealdirako (417,1 milioiren aurrekontua); hirugarrena, 2005-2007koa (431,6 milioi), eta laugarrena, 2009-2012koa, ondoren 2013 eta 2014 urteetan ere luzatu zena (43,4 milioi euro). Guztira, 1.500tik gora milioi euro enplegu planetarako.

Plan horietan guztietan dirutza publikoa erabili da, sinatzerakoan lorpen handiak izango zirela agindu zen eta amaieran diagnostikoa egitea autokonplazentzia eta propaganda izan da nagusi. Enplegu Plan guztion helburua ez da benetako enplegu politikarik bultzatzea, eredu klientelista bat sustatzea baizik.

5.4. NEZen hitzarmenak, estatuko lege bat saihesteko eta eredu opaku bat iraunarazteko tresna

Estatuko legediak (30/2015 Legea) enplegurako prestakuntzan zegoen irizpidea aldatu egin zuen: dirulaguntzak lehia irekian banatu behar ziren, hau da, parte hartzeko eskakizunak betetzen dituen edozein erakundek parte har zezakeen lehiaketa bidez.

Ondorioz, ezin zen jarraitu artean indarrean zegoen lehia eskusiboko sistemarekin, zeinak dirulaguntzak jasotzea bermatzen zien CEN, UGT eta CCOOi; horregatik, Nafarroako Gobernuak aldebiko hitzarmenak egin zituen Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta hiru erakunde horien artean.

Zehazki, 2015ean NEZek gutxienik 23 aldebiko hitzarmen sinatu zituen CEN, UGT eta CCOOekin Administrazioari dagozkion eginkizunak delegatzeko (enplegu-behatokiaren kudeaketa, immigranteen arreta).

Ondorioz, UGTko eta CCOOeko ia 120 lagunek soldata (osoa edo zati bat) hitzarmen horiei esker jasotako dirulaguntzetatik kobratu zuten, hau da, kutxa publikoetatik. Horien artean, CCOOeko zuzendaritzako gutxienez 5 kidek eta UGTko zuzendaritzako 4k soldata jaso zuten

(guztia edo zati bat) hitzarmen hauetatik; gainera, erakunden ohiko gastuak ere ordaindu ziren modu berean: argia, errentak, telefonoa...

Honi buruz ELAk egin zituen salaketen ondorioz azkenean aurreko Gobernuak hitzarmen hauek bertan behera utzi behar izan zituen.

5.5. Urrezko domina partekatutako interesentzat

Hiruko kudeaketa eredu hau bere partaideentzat guztiz emankorra da; ez hainbeste langile-klasearentzat edo gizartearentzat. Horregatik 2008an Miguel Sanz buru zuen UPNren Gobernuak Nafarroako Urrezko Domina eman zien CEN, UGT eta CCOOi *“proiektu handiak babesteko jarrera iraunkorra”* zutelako.

Domina honek agerian uzten du zer nolako interesak partekatzen dituzten erakundeok, elkarrizketa sozialari eusteko, unean uneko Gobernuarekin: politika publiko jakin batzuk txalotu eta botere zein finantziazio publiko kuotak lortzen dira.

6. Ondorioak

- Nafarroako elkarrizketa soziala sare opaku bat izan da, non finantziazio publikoaren truke bake soziala bermatzen zen; azkenean gobernuen politika antisozialak legitimatzen dira.
- Elkarrizketa sozialak Patronalari beto eskubidea ematen dio, baina gainera ez du zilegitasun demokratikorik: UGTk eta CCOOk ez dute Nafarroan ordezkartzaren %50 osatzen.
- Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua bertan behera utzi behar da; agerian geratu da, urteen buruan, ELAk asmatu egin zuela Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Gobernu Kontseiluan ez sartzea erabakita.
- Nafarroako Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Podemos) erabaki du erregimenaren irizpide antidemokratikoetara itzultzea UGT eta CCOO sustatzeko; horrela Sanz eta Barcinaren garaitako enplegu-politikarik okerrera berreskuratu du.
- 2021-2024 Enplegu Planari dagokionez:
 - CEN, UGT eta CCOOen esku 700etik gora milioi euro jarriko dira enpleguak dituen benetako arazoei heldu gabe, edota helburu zehatzik finkatu gabe.
 - Aurrekontu-sail konkretu bakarrak dira Patronalaren mesedetan eta zuzenean UGT zein CCOOentzat izango direnak; horretarako gai oso larriak baliatuko dira, esaterako lan istripuak eta genero berdintasuna.
 - Plana propaganda hutsa da, orokorkeriaz josia eta enpresen aldeko hizkuntza erabiltzen duena; gainera, ikastetxeetara eramanez nahi dute enpresarioaren figurari buruzko ikasgaia.

- Politika publikoak pribatizatzea eragingo du, Parlamentuaren kontroletik at geratuko delako.
- Planak europar funtsen alde egingo du, baina ez du esaten hauek baldintzatuta jasoko direla; bestalde, AHTari eutsi nahi dio.
- Planak ahaztu egiten du Nafarroako Gobernuari enplegatzailer den aldetik dagokion ardura, eta ez dio heltzen arlo publikoan aldi baterako enplegua murrizteko beharrari.

Nafarroa, 2021eko uztailaren 5a



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA